



ALTXORRAK TOALLA AZPIAN
TESOROS BAJO LA TOALLA



Aisialdirako lekuak eta zerbait gehiago...

Lugares para el ocio y algo más...

Euskadin kontrastez betetako kostalde ikusgarria daukagu, mendiko berdeak Kantauri itsasoko urdin biziarekin bat egiten du eta. Marinel-tradizioko herriak, hondar xehezko **hondartzak** eta errekarriko **kalak** txandakatu egiten dira paisaia nabarmenki malkartsu batean, non itsaslabarrak eta harkaitz-formazioak nagusitzen diren. Sarbide errazeko lekuetan egiten ditu **gizakiak** itsasoarekin zerikusia duten **aisia-jarduera** gehienak, batez ere eguraldia lagun bada.

Uda guztietan, gure **hareatzek milaka pertsona** hartzen dituzte; denak batera etortzen dira bainatzera, eguzkia hartzera, brisaz gozatzera edo errutinatik deskonektatzera. Argi dago gutako askok gozatzeko dugula itsasotik hurbil egoteaz eta instintuz jotzen dugula hara une atseginak igarotzeko, baina gutxitan **ohartzen gara gauden lekuaz, haren garrantziaz eta gorde ditzakeen sekretuez.**

Gure ingurune hondartzak eskuoihala paratzeko eta itzalkina jartzeko tokiak baino askok gehiago dira. **Biodibertsitaterako** funtsezko guneak, altxor **geologikoak** ezkutatzen dituzten puntuak eta **ondare historiko** azpimarregarria daukaten espazioak dira. Leku horiek **iraganetik** seinaleak bidaltzen dizkigute eta,

En Euskadi gozamos de una espectacular costa de contrastes, donde el verde del monte se une con el intenso azul del Cantábrico. Pueblos de tradición marinera, **playas** de arena fina y **calas** de cantos rodados se alternan sobre un paisaje eminentemente abrupto, donde los acantilados y las formaciones rocosas predominan. Es en los lugares de fácil acceso donde el **ser humano** desarrolla la mayoría de las **actividades de ocio** en relación con el mar, sobre todo si el tiempo acompaña.

Cada verano nuestros **arenales** acogen a **miles de personas** que acuden en masa a darse un baño, tomar el sol, disfrutar de la brisa o simplemente desconectar de su rutina. Está claro que somos muchas y muchos quienes gozamos de estar junto al mar, e instintivamente nos dirigimos allí con intención de pasar un buen rato, pero pocas veces **reparamos en el lugar donde nos encontramos, en su importancia y en los secretos que este pueda llegar a esconder.**

Las playas de nuestro entorno son mucho más que un lugar donde posar la toalla y clavar la sombrilla. Se trata de áreas clave para la **biodiversidad**, puntos que esconden joyas **geológicas** y espacios con un **patrimonio históri-**




*Irudia / Imagen: ANDER EZAMA (Axular Lizeoa).
Concurso Azterkosta 2018 lehiaketa.*

aldi berean, etorkizunean hartuko dugun bi-
deaz **gogoeta** eginaraz diezagukete.

Anima zaitze gure hondartzetako zenbaitek
gordetzen dituzten sekretuak, gure hareatzek
dauzkaten adibide guztietatik gutxi batzuk,
ezagutzera.

co subrayable. Lugares que nos mandan
señales del **pasado** y que, a su vez, nos pue-
den hacer **recapacitar** sobre hacia dónde nos
dirigimos en el futuro.

Te invitamos a descubrir los secretos que es-
conden algunas de nuestras playas, unos po-
cos ejemplos de entre los muchos que alber-
gan nuestros arenales.



*Irudia / Imagen: EIDER BUJÁN (Artxandape Ikastola).
Concurso Azterkosta 2018 lehiaketa.*

Barrikako hondartza / Playa de Barrika.



Trenbide batek minerala itsaslabarretan zehar garraiatzen zuen, Kobarongo meategi hurbiletatik Pobeñako El Castillo zamalekuraino.

Un ferrocarril transportaba el mineral por los acantilados, desde las cercanas minas en Kobaron hasta el cargadero de El Castillo.

Arena hondartza, Muskiz

Playa de La Arena, Muskiz

Arena hondartzako erabiltzaileetako askok badakite ezen, udako egun batez gozatu ostean, oinak eta eskuoihala ziurrenik **gorri-gorri** itzuliko direla etxera. Jendeak “zikintasunari” edo “kutsadurari” leporatu ohi dio gertaera hori, gaur egun egiten diren jarduerak direla-eta, baina arrazoia guztiz bestelakoa da eta iraganen bilatu behar da.


Arena hondartza eta hurbileko Pobeña eta Kobaron auzoak Bizkaiko **meatze-aldiko** toki gailenak dira. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasie-

Muchas de las personas que se acercan a la playa de La Arena saben que, tras disfrutar de una jornada de verano, sus pies y la toalla probablemente vuelvan a casa de un color **rojo intenso**. Popularmente se suele achacar a la “suciedad” o a la “contaminación” debido a las actividades que se dan en la actualidad.

Pero la razón es otra bien distinta, y hay que buscarla en el pasado.

La playa de La Arena y los vecinos barrios de Pobeña y Kobaron son destacados lugares del **periodo minero** en Bizkaia. La extracción y exportación





El Castillo zamalekuan, itsasontzi ingelesak mineral preziatuaz betetzen ziren.

Desde el cargadero de El Castillo se llenaban los buques ingleses del preciado mineral.

ran, etengabe erauzten eta esportatzen zen burdina Pobeñako zamalekutik Ingalaterrantz.

Hurbileko meategien ustiapenaren eta Barbadun ibaiaren ondoko zenbait tokitan egiten zen **mineral-garbiketaren** ondorioz, lursailak burdinaren kolorea hartu zuen. Ura uher jaisten zen itsasoko bokaleraino eta, horregatik, harreatza kolore gorrixkez tindatu zen.

XX. mendearen erdialdean, meatzaritza-jardura gelditu egin zen, eta orduz geroztik lurzorua pixkanaka bere kolore naturala berreskuratuz joan da, baina herdoil bereizgarri horrek oraindik ere badirau gaur egun.

de hierro desde el cargadero de El Castillo (Pobeña) hacia Inglaterra fue incesante durante finales del siglo XIX e inicios del XX.

La explotación de las minas cercanas y el **lavado del mineral** que se realizaba en diferentes puntos junto al río Barbadun hizo que el terreno adquiriera el color propio del hierro. El agua bajaba turbia hasta la desembocadura del mar, lo que hizo que la arena se tiñera de colores rojizos.

A mediados del siglo XX cesó la actividad minera, y desde entonces el suelo ha ido recuperando su color natural poco a poco, debido al "lavado" producido por la lluvia, la ría y el mar. A pesar de todo, y aún hoy día, el característico color óxido perdura en gran parte del arenal.



Gorrondatxe hondartza, Getxo

Playa de Gorrondatxe, Getxo

Gorrondatxe edo Azkorri hondartza ingurune natural paregabean dago, **itsaslabar** malkartsuen artean eta **duna** ilun eta garatuez inguratuta. Dunek ekosistema bitxia eratzen dute eta gure itsasbazterrean oso ohikoak ez diren espezieak finkatzea ahalbidetzen dute.

2012. urtean, nazioarteko komunitate zientifikoak itsaslabarreko estratu geologikoek duten balioa aitortu zuen eta “**Urrezko Itze**” saria eman zion lekuari, **Lutetiar** aldiko estratotipoa-

La playa de Gorrondatxe o Azkorri está situada en un entorno natural de excepción, encajada entre abruptos **acantilados** y flanqueada por desarrolladas **dunas** de color oscuro que conforman un ecosistema peculiar y posibilitan el asentamiento de especies poco habituales en nuestro litoral.

En el año 2012 la comunidad científica internacional reconoció el valor que poseen los estratos geológicos existentes en el acantilado,



ren munduko erreferentzia gisa. Hau da, duela 50 milioi urte izan zen aldi hori ondoen azter daitekeen lekutzat jo zuen.

Hareatzen estratuak baino askoz ere “berriagoak” diren arrokak barreiatuta daude. Arbedol-turroia balira bezala aglomeratu diren harri txikiez eta beste elementu batzuek osatutako blokeak dira. Nerbioi-Ibaizabal itsasadarreko **industria-jarduerak**, urteetan zehar, kiskaltze-labeetatik zetozen libixiatuak isuri zituen; karbonatoen eta burdina-zepen nahasketa hori itsasora heldu zen. Oheko hondarrarekiko elkarrekintzak zementu moduko bat eratu zuen eta horrek elementu anitz (adreiluak, metalak, plastikoak eta abar) atzitu zituen, gaur egun “**arroka artifizial**” horiek osatzen dituztenak.

Apo lasterharia (*Epidalea calamita*) babesteko planari esker, hondartzaren mugetan espezia berreskuratu da.

El plan de protección del **sapo corredor** (*Epidalea calamita*) ha permitido la recuperación de la especie en los límites de la playa.




otorgando al lugar el galardón “**Clavo de Oro**” como referente mundial del estratotipo del periodo **Luteciense**. Es decir, donde mejor se puede estudiar este periodo datado hace 50 millones de años.

Rocas mucho más “nuevas” que los estratos salpican el arenal. Se trata de bloques compuestos por pequeñas piedras y otros elementos que han sido aglomerados como si de un turrón de almendras se tratase. La **actividad industrial** en la ría Nerbioi-Ibaizabal vertió durante años lixiviados procedentes de los hornos de calcinación, una mezcla de carbonatos y escorias de hierro que acabaron en el mar. Su interacción con la arena del lecho formó una especie de cemento que atrapó multitud de elementos (desde ladrillos hasta metales o plásticos) que hoy conforman estas “**rocas artificiales**”.



Urrezko Itzea geologiako “**Oscar**” saritzat jo daiteke.

El **Clavo de Oro** puede ser considerado como un “**Oscar**” de la geología.



“Alkoleako Jentilarria” delako harkaitz izugarria hondartzaren muturrean dago.

La enorme “Alkoleako Jentilarria” descansa sobre el extremo de la playa.

Alkolea hondartza, Mutriku

Playa de Alkolea, Mutriku

Alkoleako errekarritzko hondartza kilometro bat baino gutxiagoko luzera duen espazio lasaia da. Alkoleako gailurraren eta Arbeko zabalgunearen artean dago, Mutrikuko hiri-ingurunearen ekialdean.

Lursaila harritsua denez, ez da hondarra bezain aproposa eguzkitan etzateko, baina surf-lariak eta urpeko arrantzaren zaleak oso maiz joaten dira hara. Era berean, eremu horretan

La playa de cantos rodados de Alkolea es un espacio de poco menos de un kilómetro de longitud, tranquilo, y situado entre la punta de Alkolea y la explanada de Arbe, al este del entorno urbano de Mutriku.

El terreno pedregoso no invita a tumbarse al sol como lo haría la arena, pero en cambio es un punto muy frecuentado por surfistas y por amantes de la pesca submarina. De igual mo-



Estratu geologikoak Alkoleatik hurbil dagoen kostalde osoan azaleratzen dira.

Los estratos geológicos afloran a lo largo de toda la costa cercana a Alkolea.

do, es una zona en la que se puede disfrutar de hermosas vistas de la costa de Gipuzkoa y de los **afloramientos del flysch**. Además de los estratos rocosos, otras **formaciones geológicas** propias de la zona son las que han despertado las leyendas que la población local ha contado y transmitido generación tras generación.

Sobre los afloramientos de roca que se sumergen bajo el mar, en el extremo oeste de la ensenada, existe una descomunal roca de forma casi esférica a la que la tradición popular ha otorgado un **origen mitológico**. Se cuenta que este gigantesco bloque, conocido como “*Alkoleako Jentilarria*”, fue lanzado por un gigante o *Jentil* desde el monte Arno, cayendo justo en la orilla del mar.

Gipuzkoako kostaldeko bista ederrez eta **flyscharen azaleratzeez** goza daiteke. Har-kaitz-estratuez gain, eremuko berezko **formazio geologikoek** kondaira askoren iturria izan dira, eta tokiko biztanleek belaunaldiz belaunaldi kontatu eta transmititu dituzte.

Itsasoaren azpian murgiltzen diren arroka-azaleratzeen gainean, senadiko mendebaldeko muturrean, arroka eskerga eta ia esferikoa dago, zeinari herri-tradizioak **jatorri mitologikoa** egotzi dion. Bloke itzel horri “*Alkoleako Jentilarria*” deitzen diote eta, esaten denez, itsasertzean bertan erori zen erraldoi edo *jentil* batek Arno menditik bota zuenean.



Jentilak indar ikaragarria duten erraldoiak dira eta oso sustraituta daude euskal mitologian. Arrokak urrun botatzen zituzten beren etsaien aurka eta gaur egun aurkitzen ditugun trikuharrien eta harrespilen eraikitzailetzat jotzen dira.

Los *Jentiles* son gigantes de descomunal fuerza muy enraizados en la mitología vasca. Lanzaban grandes rocas a larga distancia contra sus enemigos, y se les considera los constructores de los dolmenes y crómlech que encontramos hoy día.



Santiago hondartza, Zumaia

Playa de Santiago, Zumaia

Urola ibaiak itsasoarekin bat egiten duen tokian Santiago hondartza dago, hareatza zabal eta bainatzeko ur aproposak eskaintzen dizkigun lekua, Zumaia herrigunearen ondoan. Uretatik urrunen dagoen eremuan **dunak** eratzen eta hazten dira; 50 landare-espezie baina gehiagoko ekosistema berezia osatzen dute.

Duna-sistema horrek ia 5 hektarea hartzen dituenez, Gipuzkoa osoko egoera erdinatural-leko azalerarik handiena eta EAEn dirauten lagin eskasetako bat da. Hori dela eta, haren kontserbazioa lehentasunezko zat jotzen da eta osorik hartuta planteatu behar da, oso sistema aldakorra, hauskorra eta dinamikoa delako.

Hondarrezko bizkar txikiek eratzen duten ekosisteman espezie esklusiboak daude, Euska

Donde el río **Urola** se une con el mar encontramos la playa de Santiago, un lugar que nos ofrece un amplio arenal y aguas propicias para el baño junto al casco urbano de Zumaia. En la zona más alejada del agua se forman y crecen **dunas** que componen un ecosistema especial con más de 50 especies distintas de plantas.

Con casi 5 hectáreas de extensión este **sistema dunar** es el de mayor superficie en estado seminatural de toda Gipuzkoa, y una de las escasas muestras que perduran en la CAPV. Es por ello que su conservación se considera prioritaria, y debe plantearse de manera conjunta ya que se trata de un ecosistema muy cambiante, frágil y dinámico.

El ecosistema que conforman las pequeñas lomas de arena presenta **especies exclusivas**



Honckenya peploides ezin hobeki moldatuta dago hondarrean bizitzera, lehorte jasatera eta eguzki-erradiazioa toleratzera.

Honckenya peploides está perfectamente adaptada a vivir sobre la arena, soportar la sequía y tolerar la radiación solar.



din oso banaketa mugatua dutenak, aurrera egiteko ingurune oso zehatza behar dutelako. *Honckenya peploides* eta *Herniaria ciliolata* landareak aipagarriak dira, biak kalteberatzen jotzen direlako "EAEko flora baskularren zerrenda gorria".

Hala ere, Santiagoko dunek **presio eta mehatxu** handiei aurre egin behar diete, besteak beste, hondartzara joaten diren pertsonen **zapalketari eta espezie inbaditzaileen** ugaritze-ari. Horregatik, duela gutxi zona txiki bat hesitu egin da, eta Foru Aldundiak kanpainak egin ditu flora exotikoa desagerrarazteko eta landaredi autoktonoa berritzeko.



y de muy restringida distribución en Euskadi, ya que requieren de condiciones muy concretas para prosperar. Son reseñables plantas como *Honckenya peploides* y *Herniaria ciliolata*, ambas consideradas vulnerables en la "Lista roja de la flora vascular de la CAPV".

Sin embargo, las dunas de Santiago sufren importantes **presiones y amenazas**, entre las que destacan el **pisoteo** por parte de las personas que acuden a la playa y la proliferación de **especies invasoras**. Es por ello que una pequeña zona ha sido vallada recientemente, además de contar con campañas por parte de la Diputación Foral para la eliminación de flora exótica y regeneración de vegetación autóctona.

902 160 138
aztertu@euskadi.eus
www.euskadi.eus/aztertu